

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

(Nire) Denboratik at

Bi anai. Zuzendaria: Imanol Rayo. Aktoreak: Bingen Elortza, Aitor Coteron. Euskal Herria, 104 minutu.

HOGEI URTE LUZE DIRA Bernardo Atxagaren *Bi anai* ipuina irakurri nuela. Beranduago irakurri nuen *Obabakoak*. Obabako Daniel eta Paulo bizilagun petoekin gogoratu nintzen orduan. *Bi anai* ez dago *Obabakoaken*. Aspaldiko kontuak dira niretzat, eta orain *Bi anai* filma ikusi dudanean, egia erran, ez ditut horiek gogoan.

“Filmak liburutik ahalik eta gehien aldentuz eta, era berean honi fidelotasun osoa gordez, azalean soilik geratuko ez den berezko lengoia berria sortzea du azken finean helburu” irakurri diot filmaren zuzendari Imanol Rayori, pelikula ikusi ondoren.

Bi anai (edo Obaba) ulertzeko funtsezkoa dugu denbora geureganatzea, Obaban ordea denborarik ez dago. Edo ez dago, guk bizi dugunaren erara. Denbora



izatez ez da existitzen. Denbora pertsonok gure buruari inposatu diogun aldagaia da. Literaturan –fikzioan– murgiltzen garenean, eguneroko denboratik at bizi gara –edo bizi nahi dugu–. Liburuaren maila nolakoa halako lilura sentitzen dugu. Denbora, izan ere, gure irudimenaren arabera lilura –aldagai magikoa– baita.

Nago, zinemaren lilura –istorioa, elkarrizketak, irudiak, muntaia, musika...– Imanol Rayok *Bi anai*en sortu duenaren bestelako lengoia dela. Niretzat, noski. Bizitza nor bere erara bizi baitu, baita zinema bizi ere. *Bi anai* filmaren irudiak ederrak dira, ederrak oso bizitzaz gozatzeko, eta zinema –nire gusturako– irudia da oroz gain. Ezer ez da absoluturik ordea. Irudiak –norberaren irudimenaren arabera– *tempoa* behar du. *Bi anai*en (edo Obaba) munduko biztanleek beren *tempoa* bizi dute, eta zinema aretoko ikusleek beste bat. Bestelako denbora, nire kasuan. Film honetako pertsonaiak ez dira naturalak, nire denboratik at daude, Daniel eta Paulo anaiez gorde ditudan oroitzapenetatik oso urrun (daude).



2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

finalaurrekoak

HERNANI
2011-12-04 Galarreta pilotalekua / 17:30

Bertsolariak:
IÑAKI APALATEGI
JON MARTIN
AMAIA AGIRRE
JOKIN URANGA
IÑIGO MANTZIZIDOR "MANTXI"
AINHOA AGIRREAZALDEGI

**gipuzkoako
bertsozale
elkartea**

www.gpuntua.com